

## **Elkarteen euskalduntze-prozesuaren konpromezu eta jarraipen-fitxak**

*SIADECO Ikerketa Taldea*

*“BAT” Soziolinguistika aldizkariaren 7/8 zenbakian, EKBko Administrazio Sailak izenpeturiko “Gazteen mundua euskalduntzeko egitasmoa” artikulua eraskinetan SIADECO Ikerketa-taldeak, alor hori jorrazteko erabili ohi dituen fitxak azaltzen ziren, beraien erabilerarako inolako argibiderik gabe eta beren jatorri zuzena aipatu gabe. Horregatik, komenigarritzat jo dugu, jatorriaren berri emateaz gain, beraien erabilpen egokia bermatzeko, ohar batzu ematea, eta azken urte honetan egin dizkiegun aldaketak eranstea. Horrela, gure artean, gauzak argiago gelditzea lortuko dugu, erabiltzen ditugun iturrien berri emateko ohiturari eutsiz.*

---

*In the supplement of the article “Gazteen mundua euskalduntzeko egitasmoa” (“A project to make the youth feel Basque”), signed by the EKB Administration Department and published on number 7/8 of the socio-linguistic magazine “BAT”, we could see some files, usually used by the research-association SIADECO, which bore nor evidence neither mention of source. Therefore, we consider it convenient to give its source, so as to guarantee a proper use of the information and we would also like to give some notes as well as to add the changes that had taken place on the last year. In this way, things shall be clearer among us and we shall be able to stick to our policy of ‘always giving the source’.*

**Fitxen erabilera-esparrua**

Hasteko esan beharra dago, fitxa horien erabilera ez dela gazteen mundura mugatzen; beste eratako elkarteetan ere erabil daitezke.

Maiz gertatzen da "gazte-talde" definiziopean zer sartzen den eta zer ez, ez dagoela oso garbi. Gure lkerketetan erabili izan dugun irizpidearen arabera honako hauek jo izan ditugu gazte-elkartetzat:

- "Gazte-talde" bezala definitzen direnak: aisialdi, sendotza, e.a.
- Zuzendaritza-Batzordean 15-25 urte bitartekoak nagusi diren talde eta elkarteak.
- Bazkideen artean 25 urtetik beherakoak nagusi diren talde eta elkarteak.

Bestalde, gerta daiteke elkarte bat gazte-elkartea ez izatea, baina antolatzen dituen ihardueren artean, aurreko irizpideak aplikatuta, "gazte-iharduera"tzat jo genezakeen iharduerarik izatea. Kasu hauetan, egitasmoaren hedaduraren arabera ikusi beharko da, elkarte horiek sartu ala beste heldu-elkarteekin batera jorratu.

**Fitxen erabilera-sistema**

Fitxa hauek, elkartearen autoinplikazio edo hitzarmen-fasearen ondoren erabiltze-koak dira.

Inplikazio-prozesua errazteko, komenigarria izan ohi da 2 fase bereiztea:

- Egitasmoaren aurkezpena eta konpromezu orokorraren onarpena: hitzarmenaren sinaketa eta euskara arduradunaren aukeraketa. Fase honen onarpena Elkartearen Zuzendaritzan edo Aginte-organuan hartu behar da.

- Konpromezuaren zehaztapena: fase honetan konpromezu orokorra zehaztapen txikienetara eraman behar da. Berau, euskara arduradunarekin batera landuko litzateke. Batzuetan hori nahikoa izango da eta besteetan aldiz, Zuzendaritza Batzordeak berretsi beharko ditu konpromezuetan eginiko zehaztapenak ere.

Ondoren aurkeztuko ditugun fitxak bigarren fase honetarako balio dute. Hitzarmenaren sinaketaren ondorengo faserako, alegia.

Hitzarmen-ereduak ezagunak direnez, eta udalerrri bakoitzeko egoera, eskaintza eta eskaerara egokitu behar direnez, ez dugu eredurik emango.

**Fitxen iraupena**

Aurreko alean agertzen ziren fitxak egitasmo baten bigarren urteari zegozkion (horregatik azaltzen ziren 1991. eta 1992. urteak).

Bestalde, lehen urtean jasotako hainbat datu ez errepikatzeagatik, fitxak laburtu egin ziren, aldatutako datuak (helbideak, izaera, organigramak, etab.) normalean oso gutxi izan arren, ohar modura hartu zirelarik.

Pentsa daitekeen bezala ordea, egitasmoaren haserako fitxetan ez litzateke horrelakorik agertuko. Guk aurkeztuko ditugunetan beraz, lehen urteari dagozkion datuak jasoko dira era osatuan.

Ondorengo urteetakoak era desberdinetan jaso daitezke:

-Aurreko aleko fitxetan agertzen zen bezala, bi urteetako datuak elkarren ondoan jarri.

-Urtero fitxak berrituz.

-Fitxa zaharretan aldaketak markatuz.

### **Fitxen atalak**

Fitxa hauek, honela antolatu beharko lirateke:

a).Folio batean elkartari buruzko datuak bilduko lirateke:

-Aurrealdean identifikazio-datuak

-Atzealdean elkartaren barne-bizitzako hizkuntz-tratamendu eta konpromezuei buruzko datuak

b).Ondoren, iharduerei buruzko datuak jasoko ditugu, iharduera bakoitzaren datuak folio batera bilduz:

-Aurrealdean iharduerari buruzko datuak

-Atzealdean ihardueraren hizkuntz tratamendu eta konpromezuei buruzko datuak

Ikus daitezkeen bezala, bi orri deskriptiboak dira, eta beste bietan biltzen dira hizkuntz egoerari eta hartutako konpromezuei buruzko datuak.

### **Datuen bilketari buruzko oharrak**

Egitasmoa planteiatzen den aurreneko urtean oso zaila izango da hemen eskatzen diren datu guztiak bildu ahal izatea, maiz elkartekideek ez baitituzte jakingo (ikaske-ta-mailak, euskaldunen portzentaiak, etab.) edo beste era batean izango baitituzte jasota (adin-banaketak, etab.).

Kasuotan gutxi gorabeherako datuekin konformatu beharko dugu, eta euskara arduradunen bidez bideak egin hurrengo urteetan ahalik eta datu zehatzenak eta osatuenak biltzeko.

Bestalde, komeni da kasu guztietan kopuruak erabiltzea, eta behar badira portzentaiak ondoren ateratzea.

Adinei dagokienez, multzoak banatzerakoan erabili dugun irizpide nagusia, errol-dan erabili den adin-multzokaketa izan da.

Fitxa hauek ondoren datu-oinarri batean sartzeko daude pentsatuta. Behin datu-oinarria osatuz gero, jarraipen-lana asko erraz daiteke.

Ohar horiek egin ondoren pasa gaitezen bada, fitxen azalpena egitera.

## ELKARTEAREN DESKRIBAPEN-FITXA

**Izena:**

**Helbidea:**

**Postakodea:**

**Tfnoa:**

**Arduraduna:**

**Tfnoa:**

Elkartearen izaera nagusia:

Gastronomia	<input type="text"/>
Irakaskuntza	<input type="text"/>
Aisia	<input type="text"/>

Erlijioa	<input type="text"/>
Kirola	<input type="text"/>
Kultura	<input type="text"/>

Besterik: \_\_\_\_\_

Zuzendaritza Batzordea:

	<19	20-29	30-39	40<	Guztira
Zenbat	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
Euskaldunak	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
Alfabetatuak	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>

Lehendakariaren hizkuntz tipologia

Idazkariaren hizkuntz tipologia

**Bazkideak:** (Kuota ordaintzen dutenak edo karneta dutenak)

	5-9	10-14	15-19	20-24	25-39	40<	Guztira
Zenbat	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
Euskaldunak	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
Alfabetatuak	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>

**Iharduerak - Urteko programa:**

- 1.- \_\_\_\_\_
- 2.- \_\_\_\_\_
- 3.- \_\_\_\_\_
- 4.- \_\_\_\_\_
- 5.- \_\_\_\_\_
- 6.- \_\_\_\_\_
- 7.- \_\_\_\_\_
- 8.- \_\_\_\_\_

**EGOERA HELBURUA**

EGOERA	HELBURUA
<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text"/>

**Organigrama, aginte-organuen deskribapena, eta organu bakoitzaren hizkuntz-egoera:** \_\_\_\_\_

**Beste erakunderen batekiko harreman sendo edo menpekotasunik:**

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

### Elkartearen deskribapen-fitxa: Oharrak

#### 1.- Deskribapen-datuak:

Elkartearen identifikaziorako oinarritzko datuak dira. Datu-oinarri batean ezinbestez sartu beharrekoak. Hor daudenez gain, gehiago ere eska daiteke, komenigarritzat joz gero: sorreraturtea, fax-a, etab.

#### 2.- Elkartearen izaera nagusia:

Kasu batzutan gerta daiteke oso garbi ez egotea izaera hori, edo bat baino gehiago izatea. Lehen kasuan, "besterik" laukian zehaztu egingo da, eta bigarrenean, elkartearen ihardueren barruan indar

handiena duen saila hartuko da oinarritzat, nahiz eta garrantzia badute, besteak ere markatu.

#### 3.- Zuzendaritza-Batzordea:

Zuzendaritza-Batzorderik ez badago, erakundearen martxaren ardura nagusia daramatenak hartuko dira kontutan.

Adin-banaketa honen ordez, batzutan nahikoa izan daiteke, 30 urtetik gorakoak eta behe-rakoak bereiztea. Normalean zaila da 15 urtetik beherakorik aurkitzea eta horregatik ez da adin-banaketa zehatzagorik egiten.

Dauden kasuetan, garrantzitsua da lehendakariaren eta idazkariaren hizkuntz tipologiaren berri izatea, bane eta kanpo-harreman idatziei begira, funtsezko elementuak direlako. Hizkuntz tipologiak zehazteko klabe batzu erabiliko ditugu (fitxa-orriaren azpialdean daudenak).

- 1 - Euskaldun Alfabetatua
- 2 - Euskaldun Alfabetatu Gabea
- 3 - Ia Euskaldun Alfabetatua
- 4 - Zerbait daki
- 5 - Erdalduna

#### 4.- Bazkideak:

Bazkideztat kuota ordaintzen dutenak edo karneta dutenak hartuko ditugu. Besterik ezean, erakundearen ohizko funtzionamenduan esku hartzen dutenak hartuko dira bazkideztat.

Bazkideen adin-banaketa zehatzagoa da. Honen bidez jakin ahal izango dugu elkartea, haur, gazte nahiz heldu elkarte bezala sailkatu.

Egia da bazkideen adin-banaketa eta hizkuntz-ezagupenari buruzko datuak ez dituztela jakingo kasu guztietan. Orduan, dauden datuak hartuko dira, ez daudenak lortu ahal izateko bideak eginez.

#### 5.- Elkartearen iharduerak - Urteko programa:

Atal hau, ihardueren-fitxen laburpen-taula da. Beraz, beste orri horiek betetzerakoan osatuko da. Bertan elkartearen iharduera guztiak bilduko dira (iharduera-orri adina iharduerak azaldu behar du beraz hemen).

Iharduera bakoitzari dagokion fitxan azaltzen den egoera kontutan izanik, egoeraren eta hartutako konpromezuen balorazio orokorra egingo da euskara arduradunarekin batera eta laukietan markatu, ondoko klabeen arabera:

- 0 - Erdaraz: dena edo ia dena erdaraz.
- 1 - Sarbidea: euskararen presentzia txikia, %25aren ingurukoa

2 - Elebidun: bi hizkuntzen presentzia orekatua

3 - Nagusiki: euskararen presentzia nabarmenagoa %75aren ingurukoa

4 - Euskaraz: dena edo ia dena euskara hutsez.

6.- Organigrama, aginte-organuen deskribapena, eta organu bakoitzaren hizkuntz-egoera:

Azpi-talde desberdinak, edo egitura konplikatukoak dituzten taldeen kasuetan, organigramaren eskema egitea komeni da. Kasu bakoitzean erabaki beharko da, azpi-talde horiek iharduera moduan ala elkarte moduan hartu behar diren eta zein fitxa-mota erabili.

Normalean, azpi-talde horietako bakoitzak iharduera bat baino gehiago badauka, komeniko da elkarte fitzak erabiltzea azpi-taldeari dagokionez.

7.- Beste erakunderen batekiko harreman sendo edo menpekotasunik:

Kirol, kultur, aisialdi eta elkarte politiko-sozialetan, gerta daiteke, erakunde horiek erakunde orokorrago baten "sukurtsalak" izatea edo federazioren baten partaide izatea. Datu hau erabilgarria izan daiteke, udalerriz gaindiko harreman eta egitasmoetarako.

## ELKARTEAREN BARNE-BIZITZAREN HIZKUNTZ TRATAMENDUA (\*)

AGERIKO ELEMENTUAK:

BARNE HARREMANAK:

	EGOERA	HELBURUA		EGOERA	HELBURUA
<b>Ahoz:</b>			<b>Ahoz:</b>		
Musika			Harremanak		
Irratia			Zuzendaritza B.		
TB			Beste bilerak		
			Bazkideek		
<b>Idatziz:</b>			<b>Idatziz:</b>		
Inprimakiak			Gutunak		
Oharrak			Aktak		
Iragarkiak					
Kartelak			<b>Kanpo harremanak:</b>		
			Udala		
			Finantz Erakund.		
			Beste erakundeak		

### EUSKARAREKIKO ORAIN ARTEKO JARRERA

Orain arte ezer egin edo erabaki duzue euskararen inguruan?  
-----

Zer lortu duzue?  
-----

Zein izan dira zailtasunik handienak?  
-----

\* 0 - Erdaraz 1 - Sarbidea 2 - Elebidun 3 - Nagusiki 4 - Euskaraz

#### Oharrak:

Elkartearen barne-bizitzari dagozkion elementu guztiak banan-bana aztertuko dira, kasu bakoitzean zehaztu egingo delarik une horretako egoera eta ezartzen diren helburuak. Horretarako lehen aipatu ditugun klabe berak erabiliko dira. Kasu guztietan beraz 0tik 4ra joango den zenbaki bat jarriko da egoerari nahiz helburuari dagozkion taulan.

Hemen aipatzen den elementuren bat ez badago, laukiak hutsik utziko dira eta hemen aipatzen ez denik baldin badago puntuen lerroetan idatzi eta erantsi egingo da.

Aldaketarik ezin dela eman aurrakusten bada egoerari eta helburuari dagozkien zenbakiek berdinak izan beharko dute.

Egitasmoaren lehen bisitan egin beharreko galderak erantsi dira fitxa honetan. Horien ordez, komenigarritzat jo daitekeen beste edozein erants daiteke noski. Egitasmoaren jarraipenari begira, hartu diren konpromezuak betetzerakoan edo saiatzerakoan aurkitu diren oztopoak, sortu diren behar bereziak, komenigarritzat jotzen diren aldaketak, etab. bildu beharko dira.

## ELKARTEAREN IHARDUERAK

Maiztasuna eta iraupena (egunak zehaztu): \_\_\_\_\_

### ANTOLATZAILEAK

Zenbat  
Euskaldunak  
Alfabetatuak

<19	20-29	30-39	40<	Guztira

### MONITOREAK

Zenbat  
Euskaldunak  
Alfabetatuak

<19	20-29	30-39	40<	Guztira

### ESKUHA RTZAILEAK

Zenbat  
Euskaldunak  
Alfabetatuak

5-9	10-14	15-19	20-24	25-39	40<	Guztira

### PUBLIKOA

Zenbat  
Euskaldunak

5-9	10-14	15-19	20-24	25-39	40<	Guztira

Gazte eskuhartzaileen hedadura: \_\_\_\_\_

\*Geografikoki (herri osoa edo auzoak) \_\_\_\_\_

\*Sexua: Nes  k

\*Ikasketa-mailak  
(une horretan) eta  
eta hizkuntz  
eredua.

	Guz	A	B	D
Eskolaurrea				
OHO Hasera				
OHO Erdi				
OHO Goi				
Ertainak				
Unibertsitatea				
<b>Guztira</b>				



**Oharrak:**

Iharduera bakoitzak bere fitxa izango duenez, iharduera adina fitxa izango ditugu. Kasu honetan 1. iharduera jartzen duen bezala, bakoitzari bere zenbakia jarriko zaio.

Zehazki markatuko da ere, ihardueraren maiztasuna: noiz hasi eta noiz bukatzen den, egun batekoa edo epe motzekoa bada datak zehaztu, ordutegiak, etab.

Ondoren honela banatzen ditugu ihardueran esku hartzen dutenak:

- a). Antolatzaileak: iharduera prestatzen dutenak, gero beraiek zuzenean parte hartu ala ez.
- b). Monitoreak: kirol, kultur eta aisialdi taldeetan, azpi-talde baten ardura dutenak, irakasle edo begirale gisa.
- c). Eskuhartzaileak: ihardueran zuzenean esku hartzen dutenak.
- d). Publikoa: Ihardueraren ikusle pasiboak.

Antolatzaile eta monitoreen kasuan, adin-banaketa murriztagoa da, errealitatean ere hala delako.

Eskuhartzaileak direnez iharduera guzti horien jasolego nagusia eta multzorik handiena, komenigarritzat jotzen dugu beraiei buruzko datu gehiago jasotzea:

-Geografikoki udalerrri osokoak diren ala auzo, zonalde edo barruti jakin batzutakoa.

-Sexu aldetik nola banatzen diren.

-Zein ikasmailatan diharduten eta zein hizkuntz eredutan: Azken datu hau izan ohi da biltzeko zailena.



**Oharrak**

Elkartearen barne bizitzaren hizkuntz tratamenduari buruz egin ditugun oharrak hartu behar-ko dira kontutan orri hau betetzerakoan.

Ihardueretan kasuistika handiagoa izaten denez, komeni da fitxa hau oso era malguan ulertzea eta egiten diren aldaketa guztiak edo interesgarriak diren argibide guztiak oharren atalean sartzea.

Monitore eta haur-gazteen arteko harremanak era askotakoak izan daitezkeenez, kasu bakoitza zehaztu egin behar-ko litzateke, horretarako bereziki utzitako lekuan.

Nolanahi ere, baliagarritzat jotzen diren datu eta argibide guztiak aparteko orri batean bil daitezke eta ondoren fitxei erantsi.

*SIADeco Ikerketa-Taldea*